

Herrigintza Plaza Hutsean_

Bizitzak eta lurraldeak
ehuntzeko herrigintza

Bizitzak eta lurraldeak ehuntzeko herrigintza_

Sar hitza_	3
<hr/>	
Herrigintza totalitarismo neoliberalaren garaian_	4
<hr/>	
Geure burua gobernatzeko herrigintza_	8
<hr/>	
Herrian urtu_	11
<hr/>	
Azken hitza_	14
<hr/>	

Sar hitza_

Plaza hutsa betetzera datorren dokumentu hau herrigintzaz mintzo da. Eskala lokalean –izan auzo, herri, eskualde edo hiriguneetan– egiten dugun herrigintzaren balio politikoan jartzen du azpimarra, eta ezkerreko independentismoak nolako herrigintza moldea garatu beharko lukeen proposatzen du.

Honako hau bi urteko lan-prozesu kolektibo baten emaitza da. 2018ko otsailan Durangon ospatu zen herrigintza tailerrarekin hasi genuen “Herrigintza aro berri baterako begiradak” gogoetari izenburu bereko udako ikastaroak eman zion segida. 2019ko Plaza Hutsa tailerrak hartu zion testigua, “Bizitzak eta lurraldeak” ardatz hartuta. Hezurdura horri, Europako ezkerreko fundazioen Transform sareak, Euskal Herriko hainbat eragileren laguntzaz, antolaturiko jardunaldiek eman zioten gorputza.

Garai beretsuan, EH Bilduk, udalgintza herrigilearen definizioarekin, funtsezko ekarpena egin du udalgintza interbentzio eskema integral baten baitan kokatuz. Gogoeta-emari horren guztiaren metabolizazioak gaurko leku honetara ekarri gaitu, zeinak herrigintza ulertzeko ikuspegi estrategikoa ematen digun. Badugu iparra eta badugu ibilmoldea komunitate emantzipatuen eraikuntzarako.

Herrigintza totalitarismo neoliberalaren garaian _

Zibilizazio krisia

Historiaren azkartze fase batean aurkitzen gara. Neoliberalismoa bizitzak eta lurraldeak suntsitzen ari da: modernitate kapitalistak planetaren muga biofisikoekin egin du topo; aberastasunaren metaketa hazkorrak eta demokraziaren pribatizazioak ongizate estatuak ihartu eta mediazio egitura liberalak auzitan jarri ditu; eta nazio-estatuaren higadurak krisi kultural bat gehitu du, merkatuaren eta estatuaren gaineko kontrolik ezak sortutako identitateen galeraren ondorioz. Kaosa ortzimugan, ziurgabetasunez eta arriskuz jositako aro berrian.

Espainia eta Frantzia, behiala nazio-estatu indartsuak izan zirenak, potentzia ekonomiko mundialak eta modernitatearen ikurrak, krisi larrian aurkitzen diren sistema politikoak dira egun, autoritarismora lerratzen ari direnak. Hain zuzen, krisia politikoa da funtsean, gure bizitzen eta lurraldeen gaineko erabakimena hustu ditudutelako. Gure autogobernu indibidual eta kolektiboa auzitan dago inoiz ez bezala.

Aldaketa aroan gaudela diogu, baina aldaketak hain dira handiak eta hain datoz azkar ezen aro-aldaketa baten aurrean gaudenaren sentipena gorpuzten ari den. Aldagai bakar batek balio digu egoerari neurria hartzeko: krisi ekologikoak hamarraldi bateko tarteaz uzten du erreakzionatzeko. Tarte horretan, garapen eredia sakonki eraldatzen ez bada kolapso zibilizatorioa aukera guztiz erreal da.

Testuinguru historiko hain arriskutsu honetan, kaosari eta autoritarismoari aurre hartu nahi dioten eraldaketa egitasmoek, arriskuez gain, aukera berriak ere izango dituzte. Inoiz ez baita hain agerikoa izan hainbeste jenderen begietara, datozen urteetan izango den gisan, kapitalismoari kontrajartzen zaion ordena berri baten beharra.

Mundu totalitarioa

Ni-an hasi eta ni-an bukatzen den mundua sortu du kapitalismoak, askatasuna norbere baitan hasi eta bukatzen dela sinetsarazi digu. Plataforma teknologiko handiak gure datu pertsonalen jabe egin dira, gure desira eta espektatibak kontrolatzen dituzte, etengabeko kontsumoan oinarritzen den hura izan dadin imajina dezakegun bizimodu desiragarri bakarra. Neoliberalismoak gure bizitzaren esparru intimoenak ere kolonizatu ditu.

Mundu totalitario bat sortu du, subjektibotasun bakar bat, kontsumo eta merkantilizazio erabatekotik pasatzen dena, zeinari izkin egitea geroz eta zailagoa zaigun. Finean, neoliberalismoak taldetasuna hausten du, kolektiboa, komuna, publikoa dena pribatizatuz. Bestelako bizimoduak eta mundua irudikatu eta, bestelako balioak eta desirak aurkitzeko zirrikituak itxiz, norbanakoa bakar-bakarrik nahi du merkatuaren aurrean. Zaila zaigu inoizko alienazio forma bortitzena denari aurre egin eta eraldaketari zentzua eta norabidea ematea.

Jendarte hauskor eta fragmentatuak dira gaurkoak, talde baten parte sentitzeko premia bizia dutenak. Nitasun berriak eraikitzeko ezinbestekoak diren gutasunen faltan gaude, baldin mundu totalitario honi beste mundu bat kontrajartzeko gai izango bagara.

Erresistentzia fronte bat

Horixe komunitategintzaren –edo herrigintzaren– balio politikoa XXI. mendeak ekarri digun mundu distopiko honetan. Euskal Errepublikan gorpuztua ikusten dugun jendarte justu, aske eta berdinzalearen aldeko lehen-lehenengo lubakia sare komunitarioak errekueratzea da, gutasunak eraikitzearen aldeko ekina. Lorea Agirre eta Idurre Eskisabelen hitzetan, bestelako bizitza desiragarriak marrazteko ezinbestekoa da taldea, komunitatea, indibiduotik harago joatea. Eta komunitate izateko geure modua herri izatea da. Herri izatea hiri baino. Edo hiritar baino lehen herritar.

Era guztietako sare komunitario berdinzaleen birjabetzea: guraso elkarteak, talde feministak, kirol eredu ez-konpetitiboa sustatzen duten elkarteak, greba batzordeak, migranteen harrera taldeak, komunikabide herritarrak, elikadura burujabetzaren aldeko mahaiak, herri hezitzaileen lan-filosofian kokatzen diren egitasmoak, talde euskaltzaleak, etxebizitza komunitarioak, kultur ekimen burujabeak, talde ekologistak, lan eta bizi baldintza duinen aldeko ekinbideak, kooperatibak, naturaren zaintza sustatzen duten mendi-taldeak, zaintzaileen plataformak, elikagaien bankuak, pobrezia egoeran aurkitzen diren pertsonetikiko elkarkidetzazko ekimenak, gazte asanbladak, auzo elkarteak eta abar. Halako egitasmo kolektibo bakoitza totalitarismo neoliberalari aurre egiteko lekunea da, diskurtso kontra-hegemonikoa eraikitzeko lubakia, subjektibitate berriak sortzeko espazioa eta denbora.

Horrez gain, herrigintza elkargunea da. Interseksionalitateak, tresna analitiko eta politiko gisa, balio digu herrigintza ulertzeko. Labur esanda, interseksionalitateak menderakuntza sistema ezberdinetako botere-harremanak izendatu eta elkar ahalduntzeko guneak sortzea proposatzen du. Zentzu horretan, egitura hibridoak martxan jartzea izan liteke aukera bat: euskara taldeak, talde feministak, ekologistak, migranteenak, kultur taldeak eta abar elkarrekintzan jartzea. Izan ere, elkarlan hau praktika politiko material batean gorpuzten denean, herrigintza praktika konkretu batean, potentzial eraldatzailea biderkatu egiten da.

Batetik, halako esperientziek sarri elkarri bizkarra ematen dioten agendak bateratzeko balio dutelako, indarrak batzeko; zapalkuntza ardatz ezberdinetako borroken arteko lankidetzeta edo artikulazioa gauzatzeko. Bestetik, identitate hegemonikoek estaltzen dituzten bestelako errelatuak eta subjektuak eratzen dituztelako.

Euskal Herrian gorpuzten ari diren garaiko korrante eraldatzaileentzat –feminismoa, ekologismoa, xenofobiaren eta arrazakeriaren kontrako mugimendua, lan eta bizi baldintza duinen aldekoa, mugimendu euskaltzalea– herrigintza elkarlaneanako espazioa da, eraldaketari zentzua eta norabidea ematen dioten narratiba aglutinatzaileak sortzeko aukera.

Geure burua gobernatzeko herrigintza_

Boterea hartu eta eraldatu

Politikaren ikuspegi egiturazkoa beharrezkoa zaigu herrigintzan. Esan dugunez, edozelako sare komunitario berdinzaleen errekupeazioa da lehen-lehenengo lurbakia. Boterea hartu eta eraldatzea, bigarrena. Izan ere, zer da funtsean aldarrikatzen ari garena? Botere-ahalmena herritarren eskura izatea, transbertsala den ideia erradikal eta demokratiko bat: soberania edo burujabetza, burujabetza askotarikoa; finean, erabakimen lurraldetu eta instituzionalizatua geure burua geuk goberna dezagun.

Eskala lokalak ematen du esperimentaziorako aukerarik zentzu horretan, eta ez gutxi. Izan ere, gobernantza eredu berriak saiatzeko aukera eskaintzen du, biharko Euskal Errepublikaren gaurko gobernantza praktikak: administrazioaren eta komunitatearen arteko hibridazio aukerak esperimentatzea, arazo eta erronka komunei erantzuteko gaitasun kolektiboa lantzea, gizarte-kohesioan aurrera egiteko ereduak sortzea.

Halaber, baliabide materialen jabetza-eredu komunitarioak garatzeko aukera ematen du, pertsonak eta komunitateak ahalduntzea helburu duten publikotasun ereduetan sakonduz. Honakoa da erronka: zenbat espazio ken diezaiokegu instituzioen logika administratibo-burokratikoari eta zenbat merkatuaren logika lukratiboari?

Prozesu Herrigilea

Horrek komunitate lokaletan egiten dugun lan politikoa interbentzio eskema integral baten arabera ulertzea garamatza. Prozesu Herrigilea deritzogu gizarte antolamenduaren dimentsio guztiak barnebiltzen dituen eskema honi. Ezin baitugu dimentsiootako bakar bat ere alboratu: Norbanakoen, gizarte-eragileen, Udalen eta konpromiso komunitarioa adierazten duten eragile ekonomikoen arteko elkarlanaz sortutako estrategia eta ekimenek josiko dute Prozesu Herrigilea, garapenaren adiera integrala ipar hartuta –ekonomikoa, ekologikoa, hizkuntzazkoa, teknologikoa, politikoa, eta abar–.

Gaur, erronka kolosalen aurrean, narratiba komunitario eraldatzaileak sortzeko gai diren elkarlan dinamika sendoak behar dira Udalen, herri-mugimenduaren eta hainbat eragile ekonomikoren artean. Bukatu dira proiektuen kudeaketan oinarritzen den goitik beherako instituziogintzaren garaiak. Ez dago eraldaketa sozial eta ekonomiko sistemikorik narratiba komunitario indartsuak sortzeko gai diren prozesu komunitariorik gabe.

Eta horrek ezkerreko independentismoaren herrigintzarako ahalak eraldaketa prozesu komunitario zabalen mesedetan askatzea galdegiten du. Interbentzio politikoaren eskema osoa buruan izan eta esparru bakoitzean egin beharreko lanaren nolakotasuna eta esparruen arteko dialektika ulertzea; esparruen arteko tentsioak sortzaileak izan daitezten lan egitea.

EH Bilduren udalgintza herrigilearen lanean gobernantza eredu bat proposatzen da, instituzioen eta herri-mugimenduaren arteko dialektikak nolakoa behar duen zehazten da, eta merkatuan esku hartzeko bideak proposatzen dira. Halaber, Prozesu Herrigilearen garapenerako 13 interbentzio ildo ere proposatzen dira.

Euskal herrigintza

Demokrazia lokalaren eraikuntza da euskal herrigintzaren lehen geruza. Bilakatu ditzagun gure herri eta hiriak erresistentzia fronte, komunitate emantzipatu: herri-kide guztien eskubide guztiak bermatuz, garapen ekonomikoa herritarren beharrietara bideratzeko tresnak garatuz, desjabetze prozesuei jabetza kolektiboa kontrajarriz, autoritarismoaren aurrean elkartasun olatu bat altxatuz, xenofobiari bizikidetzatza demokratikoarekin erantzunez, gure hizkuntza eta kultura biziberrituz, despatriarkalizazioan bidea eginez, ingurumenaren suntsiketaren aurrean baliabide naturalak zainduz eta praktika ekonomiko iraunkorrak saiatuz, trantsizio energetikoan urratsak emanez eta abar.

Eta saretu eta antolatu gaitezen, tokian toki egiten dugun herrigintzak Euskal Errepublikaren oinarri material eta sinbolikoak mamitu ditzan. Eraldaketa sozial sistemikoak euskal eskala aintzat hartzea eskatzen baitu, eskala txiki eta ertaineko proiektuek eskala handiko proiektuak hauspotu ditzaten. Pentsa dezagun Euskal Herria eraldaketa eskala gisa, gure lurraldearen eskala fisikoa aproposa izan baitaiteke esperimentaziorako, potentzia bat bilakatzeraino Europa mailan.

Herrian urtu_

Prozesu Herrigile bat komunitatea ezagutzea da, harremanak jostea, behar sozialak atzemateko sena garatzea, herrikideekiko enpatia izatea, lidergo kolektiboak eraikitzeko dinamizazio lana egitea eta beste gauza asko. Hori tokian toki baino ezin daiteke egin, ezen toki bakoitzeko esperientzia singularra da, bertako baldintza konkretuen gainean eraikia. Toki batean egindakoa ezin daiteke beste toki batean automatikoki erreplikatu. Ez dago errezeta magikorik, errezetak tokian toki sortu behar dira.

Baina badago edonon baliagarria den premisa bat: herrigilerik gabe ez dago Prozesu Herrigilerik. Prozesu Herrigileak ekintzaile komunitarioak behar ditu, herri-mugimenduan ari diren ekintzaileak, beren agenda propioari uko egin gabe hanka bat prozesu komunitarioan jartzen dutenak; interbentzio eskema osoa, bere integraltasunean, ulertzen dutenak. Gaur guraso elkarte bateko kide direnak, edo gazte asanblada batekoak, edo kirol talde edo talde feminista batekoak, edo kooperatiba batekoak; eta, bihar, agian, zinegotzi edo alkate direnak. Eta, ondoren, ate birakarien bidez, berriro herri-mugimendura itzultzen direnak. Baina, dauden esparruan daudela ere, eskema osoa buruan duten herrigileak, esparru bakoitzean egin behar den interbentzioaren nolakotasuna eta esparruen arteko dialektika ulertzen dutenak.

Krisi-aroan gaude, garai arriskutsu eta kaotikoan. Prospekzio guztien arabera, datozen urteetan dualizazio soziala areagotu egingo da, askotariko pobrezia egoerak larrituz; migrazio-fluxuek etengabe egingo dute gora; klima larrialdiaren ondorioak geroz eta bortitzagoak izango dira; kapital-metaketa prozesu basatiek gure hiriguneak itxuraldatuko dituzte, pribatizazio eta gentrifikazio prozesuak tarteko; bioaniztasunaren galera hazkorra gertatuko da; biztanlegoaren zahartzearen ondoriozko zaintza lanak emakumeen bizkargainean eroriko dira; euskalduntzean hogeitamar urte atzera egiteko arriskuari egin beharko diogu aurre. Horiek guztiak eta gehiago dira kolapso zibilizatorio batera eraman gaitzaketen arrisku faktoreak.

Aukerak ere badira. Esan dugunez, inoiz ez baita hain agerikoa izan hainbeste jenderen begietara, datozen urteetan izango den gisan, kapitalismoari kontrajar-tzen zaion ordena berri baten beharra. Testuinguru historiko honetan ezkerreko independentismoaren betebeharrak etiko eta politikoa da eraldaketa prozesu komunitario zabaletan murgiltzea. Jendarte hauskor eta fragmentatuotan sare komunitarioak jostea, behar sozialak atzeman eta herrikide desjabetuen ondoan egotea, subjektu azpiratuekin konplizitateak eta aliantzak artikulatzea.

Finean, herrian urtzea. Herrian urtuz herrigile bilakatzea, edo herrigile bilakatu-tuz herrian urtzea; horixe ezkerreko independentismoaren zeregin nagusia fase politiko honetan.

Garaiko mugimendu emergenteetan, zalantzarik gabe. Baina baita eguneroko espazio kolektibo eta elkarte berdinzale askotarikoetan ere. Hauxe da geure buruei etengabe egin beharreko galdera: zenbat independentista daude migranteen harrera elkarteetan, guraso elkarteetan, talde ekologistetan, feministetan, akademian, bizi eta lan baldintza duinen aldeko dinamiketan, kultur taldeetan, kooperatibetan, kirol elkarteetan...? Herri-mugimenduan eta espazio kolektibo berdinzaleetan buru-belarri arituz, gure konpromiso politikoa herrigintzan gauzatuz, gure herrikideen bizi baldintza materialak hobetu eta denon eskubideak egikaritzeko geure onena emanaz, irabaziko dugu independentistok lidergo intelektual eta morala.

Hori da burujabetzaren errelatua gorpuzteko bidea, behetik gorakoa. Pulpituk botatako sermoi independentistak entzunagatik ez da jendea independentista bihurtuko. Sinetsita gaude herri-burujabetzaren aldeko ekimena biziberritzeak soilik eman diezaiokeela erantzun baikor bat aro honi, Euskal Errepublikaren eraikuntzaren bidea urratzeak, alegia. Baina horrek, diskurtso soiletik harago, praxi politiko bat behar du, herri-mugimenduan eta espazio kolektibo askotarikoetan, historia hurbilean lubaki ezberdinetan egon garenekin batera, egingo dugun eguneroko txinaurri lana.

Langintza horretan badugu geure bizimoduak auzitan jartzeko beharra. Ezkerreko independentistok eredugarri behar dugu soiltasunean eta bizimodu emantzipatuekiko engaiamenduan. Mundua eraldatzea ez da gu aldatzea, baina eraldaketa gu aldatzetik hasten da.

Azken hitza_

Bada garaia herrigintzari daukan balio politikoa aitortu eta irismen estrategikoa emateko. Bihur dezagun bada ezkerreko independentismoa ekintzaile komunitarioen fabrika bat, tokian tokiko Prozesu Herrigileen dinamizazioan trebatu eta ahalduzko eskola bat.

Bizitzak eta lurraldeak ehuntzeko herrigintza bat, geure kultura politikoaren sustraiekin lotzen gaituena, Euskal Herria behetik gora eraikiko duena, tokiz toki eta egunez egun.